



## **DEONTOLOGI BATZORDEA GIZARTE HEZITZAILEEN EUSKADIKO ELKARGOA JARDUTE PROZEDURA**

Dokumentu honek Sorkuntza Gutuna eta Komisio Deontologikoaren Funtzioak eta bere praktikaren jardueraren egitura osatzen du.

Deontologi batzordeak, Gizarte Hezitzaileen Euskadiko Elkargora iristen diren eskaera etiko eta deontologikoak aztertu eta erantzuteko erabili behar duen prozedura deskribatzen du.

Deskribapen honek, inplikazio alorrak zeintzuk diren eta jasotako eskarien arabera, jarraitu beharreko prozedura zein izango den jasoko du.

Prozesu osoaren emaitza, batzorde honek eskatzaileei eskeintzen dieten orientazio etiko eta deontologikoa da, kodigu deontologikoa erreferentzi markotzat hartuta.

Batzorde honen bitartez, orientazio etiko eta deontologikoez, hezitzaileen esku-hartze gizahezitzaileen kalitatean eta hiritarren eskubideetan hobekuntzak sor ditzatela du helburutzat.

Prozedurak bere gain hartzen du:

- Batzorde Deontologikoaren funtzioekiko egindako eskaeraren analisia eta egokitzapena
- Joera etiko eta deontologikoa batzordearen erantzun gisa.

### **Prozeduraren egitura:**

Eskaera, Idazkaritza Teknikoaren bidez jasotzen da, batzordearen koordinatzaileari bideratzen zaio eta honek, batzordeari aztertzea dagokion edo ez baloratzen du.

Batzordeari dagokionean, batzordea egokienak iruditzen zaizkion orientazio etiko eta deontologikoetatik abiatuko da, eskaerak analizatu eta erantzun bat emateko.

Batzordari ez dagokionean, batzordearen koordinatzaileak dagokion orientazioarekin erantzungo du.

